

Donostia, 2023ko martxoaren 28a

43/23 PRENTSA OHARRA

DBIZI-K HIRIKO EREMU GEHIAGOTARA ZABALDU DU ZERBITZUA, ETA BIZIKLETA ELEKTRIKOEN ESKAINTZA HIRUKOIZTU DU

Uztaila amaitu ondoren, Dbizik, Donostiako bizikleten alokairu sistemak, ziurrenik **beste 23 geltoki misto gehiago** izango ditu, eta **beste 257 bizikleta elektriko gehiago** ere flotan (egun dauden 120 bizikleta elektriko gehituko zaizkie). Zerbitzua zabaltzean, orain arte zerbitzurik ez zuten Donostiako eremuetara hedatuko da sistema, hala nola, Altzara, Bidebietara edo Añorgara, besteak beste. Horrela, beraz, sistema hobetuko da, **hirian** zerbitzuaren **estaldura handiagoa** izango baita eta bizikleta gehiago izango baititu, bizikleta elektriko flota handituta.

Eneko Goia alkateak nabarmendu du Dbiziren hedapena albiste oso ona dela hiriarentzat, herritarrek asko baloratzen duten zerbitzua hobetzea dakarrelako. Gainera, zerbitzu hau eskatzen ari zuten eremu berrietara hurbiltzen da. Alkateak gaineratu duenez, “berrikuntza hauek bultzada bat dira Udaletik hiri mugikortasunaren paradigma aldatzeko egiten ari garen ahaleginerako, garraiobide jasangarrien aldeko apustua eginez eta kalitatezko zerbitzu publikoa eskainiz”.

Goiak, aldi berean, eskerrak eman dizkie donostiarrei garraio sistema hori ezarri zenetik izan duten erantzun positiboagatik, Donostia hiri garbiagoa eta jasangarriagoa izan dadin.

Gaur egun, Dbizik 47 geltoki ditu, eta 120 bizikleta elektriko eta 317 bizikleta mekaniko. Zerbitzua uda honetan zabalduko da, eta, orduan, sistemak **70 geltoki** izango ditu guztira, denak mistoak, eta **317 bizikleta elektriko eta 317 bizikleta mekaniko** kalean. Horrela, bi bizikleta moten eskaintza berdinduko da (%50 bizikleta mekanikoak, %50 bizikleta elektrikoak), erabiltzaileen aldetik dagoen bizikleta elektriko eskari handiari erantzuteko.

Geltoki berriak gutxi gorabehera lekua hauetan jarriko dira behin-behinean:

EKIALDEKO EREMUA

- Bidebieta (2)
 - Geltoki 1 Bidebieta auzoko sarreran, kiroldegiaren inguruan
 - Geltoki 1 ainguraren biribilgunearen inguruan

- Altza (5)
 - Geltoki 1 Harrobieta plazaren inguruan
 - Geltoki 1 Altzako goialdean (alde zaharra)
 - Geltoki 1 Altzako kiroldegiaren inguruan
 - Geltoki 1 Buenavistako biribilgunearen inguruan
 - Geltoki 1 Larratxo auzoko sarreran

- Intxaurrondo (1)
 - Geltoki 1 Zubiaurreko tren geltokiaren inguruan

MENDEBALDEKO EREMUA

- Antigo- Ibaeta (5)
 - Geltoki 1 Matia kaleko sarreraren inguruan
 - Geltoki 1 Erregezaintza-Mikeleteen pasealekuaren inguruan
 - Geltoki 1 Pio Baroja kalearen erdi aldean
 - Geltoki 1 Sert plazaren inguruan
 - Geltoki 1 Berioko goialdearen inguruan

- Aiete (3)
 - Geltoki 1 Bera Berako merkataritza eta kirol gunearen inguruan
 - Geltoki 1 Lugaritzeko biribilgunearen inguruan
 - Geltoki 1 Puio Lanberri inguruan (zehazteke)

- Añorga (1)
 - Geltoki 1 Añorga Txikira sartzeko biribilgunearen inguruan

Sistema aurretik esandako auzoetara zabaltzeak eskatzen du, halaber, **Erdialdea-Amara-Gros-Egian ere sarea zabaltzea**, auzoen artean gertatzen diren joan-etorriei erantzun ahal izateko eta erdialdetik gertuen dauden eremuetako geltokietan ainguraleku libreak egon daitezen

Horregatik, eremu horietan geltoki berriak instalatzeaz gain, lehendik dauden geltoki batzuetan ainguraleku gehiago jarriko dira eta garraio publikoaren **intermodalitatea indartuko da**.

ERDIALDEA-AMARA-GROS- EGIA

- Erdialdea (2)

- Geltoki 1 Prim kalea eta Errege-Erregina Katolikoen kalea elkartzen diren lekuaren inguruan
- Geltoki 1 Udaletxearen inguruan
- Ainguraketa kopurua handitzea: 12 ainguraleku gehiago lehendik dauden geltokietan

- Amara (1)

- Geltoki 1 Aita Donostia plazaren inguruan
- Ainguraleku kopurua handitzea: 18 ainguraleku gehiago lehendik dauden geltokietan

- Gros-Egia (3)

- Geltoki 1 Katalunia plazaren inguruan
- Geltoki 1 Egia goialdean
- Geltoki 1 Zuhaizti inguruan

Adierazitako kokapenak behin-behinekoak eta gutxi gorabeherakoak dira, eta gaur egun behin betiko kokapena definitzeko lanean ari dira.

Zerbitzuaren zabaltze horren zati bat, zehazki gehituko diren 132 bizikletak, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendarako Ministerioaren (MITMA) Next Generation Funtzen bidez finantzatzea aurreikusita dago.

Erabiltzaileen gogobetetzea

2022az geroztik, Dbizik AENORen ziurtagiria du Garraio Publikoaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren UNE-EN 13816 arauaren arabera, eta ziurtagiri horrekin aitortuta dago zerbitzuak duen kalitatea. Horrez gain, AENOREk arau horren arabera ziurtatu duen bizikleten alokairurako lehen enpresa da, eta enpresa bakarra.

Ziurtagiri horren esparruan, azken asteetan Dbizik beste gogobetetze inkesta bat egin die sistemaren erabiltzaileei, eta inkestaren emaitzak oso onak izan dira, zerbitzuak ondo funtzionatzen duen adierazgarri. Datu horiek hiriko auzoetan bizi diren profil desberdineko eta 16 urtetik gorako **318 erabiltzailer** egindako inkestetatik lortu dira.

Inkestatuek zerbitzuaren hainbat alderdiri (irisgarritasuna, informazioa, erosotasuna, segurtasuna edo ingurumeneko eragina) ematen dieten garrantzia baloratu dute, baita alderdi horietako bakoitzarekin zenbateraino dauden pozik ere. Hauek izan dira hoberen baloratutako alderdiak, lehentasun hurrenkeraren arabera:

1. **Bizikleten eskuragarritasuna** geltokietan.
2. **Ainguraleku libreen** eskuragarritasuna geltokietan.
3. **Bizikletak garbi** aurkitzea.
4. **Matxuratutako** bizikletak aldizkakotasun egokiarekin (24 h) **ordezkatzea**.
5. Bizikletek eskaintzen duten **segurtasuna**.
6. **Informazio** egokia web orrian.
7. Egindako kontsultei edo erreklamazioei **erantzuteko azkartasuna**.
8. Geltokien **sareak** estaltzen duen eremua.
9. Bizikleten zerbitzua erabili ahal izatea, gehiago kutsatzen duten beste garraiobide batzuk erabili ordez

Dbiziren sarea zabalduz, sistema sendotu ahal izango da, eta erabiltzaileen beharrei erantzun, geltokien sariari esker eta bizikleta mekanikoen zein elektrikoek kalitateari esker, lurraldean leku gehiagotara iristea ahalbidetzen baitute eta mugikortasun jasangarria donostiarren egunerokotasunaren parte izatea errazten baitute.